



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Munjoie!**

Egilea / Autor: **Juan Luis Landa**

Irudiak / Ilustraciones: **Juan Luis Landa**

Saila / Colección: Orreagako kronikak, 2

ISBN / EAN: 978-84-9109-842-3

Salneurria / Precio: 18 €

Orri kopurua / N° páginas: 56

Formatua / Formato: 235 x 320 mm

Materia: Helduen komikia – Cómic para adultos

Lana / La obra

778. Karlos Handiak, erresuma germaniarren konkistatzaile eta Erromako elizaren babesleak, Marka Hispaniarra ezarri beharra du Pirinioen hegoaldean inperio islamiarraren oldarrari eutsi ahal izateko. Hala, Zaragozara abiatu dira armada frankoak inoiz ezagutu duen errege boteretsuenaren osteak, agindu zitzaion bezala, Hispaniako iparraldeko hiri handiaz jabetzeko. Baina hara heldutakoan, sarrazenoek traizioa eginda, amorruek bere bizitzako okerrik handiena egitera bultzatuko du Karlos erregea.

Konkista itsu eta negargarri baten istorioa da hau, eta Orreagako gudu tragikoarekin amaituko da, baita mito baten sorrerarekin eta garai guztietako abesti epikorik handienarekin ere: *la Chanson de Roland* edo *Errolanen kantua*.

Egilea / Autor:

JUAN LUIS LANDA (Errenteria 1965). Kimika Metalurgikoko ikasketak egin ondoren, irudi eta marrazkigintzako lan profesionalean hasi zen 1984an, *Ipurbeltz* aldizkarian. Bere lanen artean aipatzekoak dira:

Kalabaza tripontzia (1984), *GABAI*, *Gure Herriaren historia* (Lur, 1986), *Ignacio Loiolakoa* (Lur, 1990), *GABAI*, *Euskaldun ospetsuak* (Lur, 1992), *El ciclo de Irati* (Glénat) eta geroago *El Fuerte* (Norma) komiki-albumak argitaraturik Europan zehar zabaltzen du bere lana.

NUR (Erein, 2008), Toti Martínez de Lezeak haurrentzat idatzitako eleberrietarako ilustrazioak egin ditu, eta behin baino gehiago saritu dute lan horrengatik.

Bi hamarraldiz europako merkatutik kanpo egon ondoren, bere komiki-zaletasun biziak Raule gidigilearekin harremanetan jartzera eraman zuen. Dargaud argitaletxearen eskutik, Raule gidioiaz arduratuta eta Landa marrazkiaz eta koloreaz, sail berri bat sortu zen, *Arthur Trivium*.

